

# EAEko liburu sektoreko gogoeta estrategikoa

2012ko ABENDUA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

kulturaren  
euskal  
kontseilua  
consejo  
vasco  
de cultura



kulturaren  
euskal  
kontseilua

# EAEko liburu sektoreko gogoeta estrategikoa

---

2012ko ABENDUA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:  
1.a, 2013ko martxo

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet:  
[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea:  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:  
Miren Unzurrunzaga Schmitz

Aldez aurretiko gogoeta	5
Proiektuaren planteamendua	6
<b>1. DIAGNOSTIKORAKO GAKOAK</b>	<b>8</b>
1.1. Ingurune-faktoreak	8
1.2. EAEko liburu-sektoreko faktoreak	11
1.3. Aldeko eta kontrako elementuak	15
<b>2. EKITEKO PRINTZIBIOAK ETA ESPAZIOAK</b>	<b>17</b>
2.1. Jarduteko printzipioak	17
2.2. Solaskideak eta lankidetzarako espazioak	19
<b>3. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA JARDUTE-LERROAK</b>	<b>20</b>
3.1. Irakurtzearen eta liburuaren balioa	22
3.2. Liburuaren negozio-eredua	24
3.3. Euskarazko liburuak	26
3.4. Etorkizun oneko liburu-dendak	26
Eranskina: Datuen laburpena	30

## ALDEZ AURRETIKO GOGOETA

Arriskutsua da liburuaren sektoreari buruzko gogoeta estrategiko bat une hauetan (2012ko maiatza eta iraila artean) egitea, bizi dugun egoerak eragindako larritasunaren ondorioz uneko analisi puntual huts suerta bailiteke. Ez da kasua. Ez dago zalantzarik bezeroak eta salmentak urritu izanaren ondorioz hainbat eragile sozialek bizi duten egoera kritikoak gogoeta baldintzatu eta eztabaida gainbehera leuntzeko behar den erantzunera bideratzen duela. Hori dela eta, zaila da proposamenen errealismoaren eta hau bezalako prozesuek behar duten anbizio-puntuaren arteko hizkera orekatuarekin asmatzea.

Abantaila bat badu, ordea, egoerak: ez die inertziei aukerarik eskaintzen eta ekiteko akuiluarena egiten du. Eta badira berrikusi eta hobetu beharreko kontuak sektorean bertan ere. Bada, halaber, komunitate nabarmen bat liburuaren inguruan, askorentzat, uste baino gehiagorentzat, liburua ezinbestekoa egiten laguntzen duena. Bilbe aberats eta aniztuna daukagu, uneko egoeratik harago doan eta ezinbestean desberdina izango den etorkizunari konfiantzaz begiratzeko aukera ematen duen analisia egiteko moduko tradizioa, ibilbidea eta jakintza duena.

Eskerrak eman nahi dizkiegu gogoetan parte hartu duten lagunei beren parte hartze aktiboa, jakintza eta proposamenak lantaldera ekartzeagatik.

## METODOLOGIA-PLANTEAMENDUA

### Proiektuaren helburuak eta metodologia

Kulturen aldeko Herritar Kontratuaren esparruan, Liburuaren talde operatiboak agerian utzi du zeinen zaila den sektoreak bizi duen unea. Hala, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak EAEko liburuaren sektorearen eta liburu-denden egoeraren inguruko gogoeta estrategikoa bultzatu du, hauek izanik helburuak:

- EAEko liburuaren sektorearen egoerari buruzko diagnostiko bat egitea.
- Liburuaren eta liburu-denden sektoreak bizi dituen eraldaketek oinarri dituzten ardatz estrategikoak zehaztea.
- Sektoreari ikuspegi ugari eta osagarrietatik (kulturakoak, hezkuntzakoak eta industriakoak) eragiten dioten politikak gidatuko dituzten jardun-lerroak proposatzea.
- Proposatzen diren lerroak abian jartzeko behar diren urratsak diseinatzea.

Horretarako, lantalde bat osatu da, 9 lagunekoa, EAEko liburuaren sektoreko saltzaileek, argitaratzaileek eta banatzaileek eta EAetik kanpoko hiru adituk osatua. Hiru aurrez aurreko bilera egin dira 2012ko maiatzetik uztaile bitartean.

- Lehen saioan diagnosia egin zen, aldez aurretik egindako bilaketa dokumentalaren ondorioz egindako txosten batean oinarrituta.
- Bigarren saioan, berriz, sektoreari funtsezkoak zaizkion aukera eta jarduteko premien inguruko eztabaida. Gainera, abiaraz litezkeen ekimen posibleei begira, jardunbide egokiak aztertu ziren.
- Hirugarren saioak, azkenik, erabakiak hartzea eta hartzen diren erabaki horiek gauzatzeko egin beharreko urratsak izan zituen hizpide.

## Lantaldeko partaideak

Euskadiko liburu-saltzaileen  
federazioa:

Kepa Torrealdei, Fernando González,  
Fernando Fernández

Euskal Editoreen Elkartea:

Jorge Giménez Blech

Euskadiko Editoreen Elkartea:

Jose Agustín Iturri

Banatzailea:

Carlos Muro

Kanpo-adituak:

Manolo Bragado, Enric Faura, Damià Gallardo

### **EAEko biztanleen kopurua eta ezaugarriak**

Euskal biztanleriak alde dituen faktoreak (hezkuntza-maila, Euskararen ezagutzaren gorakada...) gorabehera, ez dugu ahaztu behar benetan zenbat biztanle diren: 2010ean, 2.169.038 lagun ziren.

Azken hamarkadetan, biztanle-kopuru totalaren gora-behera txikiek eta populazioaren adinaren araberako egitura aldatu izanak definitu dute dinamika demografikoa. Urte horietan are gehiago txikitu da hilkortasuna, ugalkortasun txikiko eredia sendotu egin da eta migrazio-fluxuen norabidea alderantzikatu egin da, emigratzeko testuinguru batetik migrazio-saldo positiboko egoerara igaro baita, atzerritiko immigrazioa dela eta; horren guztiaren ondorioz, biztanleria oso azkar ari da zahartzen.

### **Krisi ekonomikoa eta kontsumoaren beherakada**

Testuinguru dinamikoko urteetako hedapen-aldiaren ondoren, kontsumoaren beherakada handi bat ari da gertatzen, azken hilabeteetan bereziki areagotu egin dena. Erraza ez bada ere kuantifikatzea bezeroen eta salmenten murrizketaren zer proportzio zor zaion uneko egoera ekonomikoari, datuek argi asko erakusten dute familien batez besteko gastuaren beherakada: -% 2,6 2006tik 2010era artean<sup>1</sup>. Haatik, hori ez da larriena: familien eroste-ahalmena gutxitzea nahikoa ez, eta gutxitze horren isla nabarmenagoa izan da kultura-kontsumoaren beherakadan bestelako produktu eta zerbitzuen beherakadan baino. Esate baterako, 2010ean, familien batez besteko gastua % 1,5 urritu zen aurreko urtearekiko, eta aisia, ikuskizun eta kulturakoa, berriz, % 3,7. Beherakada horretan, liburua da gehien jaitsi den produktu kulturaletako bat. Sektorearen salmentek erakusten dute beheranzko joera horrek berean segitu ez ezik, azken hilabeteetan gora egin duela.

<sup>1</sup> INE. *Familien Aurrekontuei buruzko Inkesta*.



2012. urtean BEZa igotzeko (nahiz eta liburuak tasa murriztuan jarraitzen duen), aparteko soldatak kentzeko, aurrekontu publikoak murrizteko eta hainbat murriztapen gehiago aplikatzeko hartutako neurriek etorkizun iluna jarri diete produktu kulturalen salmentei.

Liburuaren kasuan aintzat hartu beharreko beste kontu bat da sektore hori dela zuzeneko laguntza ekonomiko publiko gutxien jasotzen duenetako bat. Finean, testuinguru ekonomikoak eta egonkortasunik ezak inkognita ugari eragin eta ziurgabetasuna areagotzen dute.

### **Best sellerraren kultura**

Gaur egungo gizartea taxutzen duten ezaugarrietako bat da nahastu egiten dituela kultura eta aisia. Antzezpena, ikuskizuna, masentzako kultura eta beste hainbat kontzeptu ere berdin, luze eta zabal landu ditu filosofiak Italo Calvinok<sup>2</sup>. «liburuaren milurtekoa» izendatu zuen aroaren amaierako ezaugarri bereziak analizatzeko. Dena dela, aldaketa kultural horrek eragin dituen aldaketa sozialak ez dira behar adina aztertu.

Kultura kontzeptuaren metamorfosia fenomeno globala da, eta, alde batetik, ekoizpen industrial masiboaren eta arrakasta komertzialaren ondorioa da. Liburuaren kasuan, bogan dagoen eredu editorialean islatzen da metamorfosi hori: titulu gehiegi sortzen dira eta,aldi berean, sekulako kanpainak egiten zaizkien titulu bakan batzuek eramaten dituzte ia salmenta guztiak. Estrategia horrek badu bere paradoxa, baina: aniztasun kulturala txikitu egiten da, *de facto*, saltokietan irakurlearen eskura dauden tituluak gutxi baitira. Bidean, banatzaile eta saltzaileek jasotzen dute horren guztiaren kaltea, irakurle bila dabiltzan liburuen andana horrek eragiten duen nobedade eta itzuleren oldean galduta.

### **Liburuak irakurtzeko eta erosteko ohiturak**

Azterlan hauetan aplikatu ohi diren metodologiak ez dira oso egokiak gaur egungo errealitaterako, gure irakurtzeko modua aldatua baita, denbora libre aurrigoa eta aisia-aukerak inoiz baino zabalagoak direlako. Dena dela, eskura dauden serie historikoek dakartzaten datuek merezi duten errezeloa gorabehera, biztanleriaren irakurketa-indizeak gorantz egiten du. Hala, aisialdiko irakurketaren indizeak biztanleen % 58 hartzen du, eta azken urtean irakurritako liburuen kopurua, batez beste, 10,6 bide da. Maiz irakurtzen dutenen kopuruak ere gora egin du, aisialdian egunero edo ia egunero irakurtzen dutenen gorakadaren ondorioz (% 3 azken lau urteetan). Datuek diote gehiago irakurtzen dela baina gutxiago erosten dela; 2011n, erositako liburuen batez besteko kopurua 10,6tik 9,6ra jaitsi zen.

<sup>2</sup> *Sei proposamen datorren milurteko* Siruela, Siruela, 1998.

Eduki digitalak irakurtzeari dagokionez<sup>3</sup> 14 urtetik gorako Espainiako biztanleen % 52,5ek dio euskarri digitaleko edukiak irakurtzen dituela, baina ehuneko hori % 6,8raino jaisten da liburu digitalen kasuan.

EAEko biztanleen ohitura kulturei baino ez badiegu erreparatzen, indizeak altuak dira inguruko testuinguruaren aldean: aipagarria da herritarren irakurtzeko ohitura, Europako batezbestekoa baino handiagoa eta Espainiako batezbestekoaren aldean askoz ere handiagoa.

EAEko irakurle elebidunen % 35,7k irakurtzen ditu euskarazko liburuak. Liburuaren kasuan oro har ez bezala, euskaraz gehiago irakurtzen dute gizonezkoek (% 37,6) emakumezkoek baino (% 33,8). Herritar gazteenek irakurtzen dute gehien euskaraz.

### **Eredu digitala: oraingoz erantzuten ez duen merkatua**

Ezkorrak izateko motiboa ematen digu eredu digitalean bat egiten duten faktoreen baturak: negozioan diharduten benetako eragile apurrek duten jarrera harrapariak, DRMaren erabilerak kontsumitzaileengan eragiten duen bizipen txarrak, prezioak, Europan eredu arrakastatsurik ez egoteak, liburu elektronikoaren benetako kuotak (% 1 baino txikiagoa)... guztien artean merkatuak ez erantzutea eragin dute. Are larriagoa da kontua euskarazko produktuen kasuan.

Europan aurrerago errepikatuko direlakoan, oso maiz AEBko merkatuari erreparatzen zaio hango joerak eta negozio-ereduak aztertzeko. Haatik, merkatu haren berezitasunak aintzat hartuta, zalantzarik da erreferentzia egokia izatea. Izan ere, AEBn merkataritza elektronikoa sendotuta dago, eduki digitalen katalogo oparoa dago, bai eta online saltzen duten enpresen eskaintza zabala ere –Amazon, kasurako, merkatuko liderra– nondik liburu elektronikoak kontsumi baitaitezke.

Kanpoan hazteko eta merkatuak nazioartekotzeko behar diren inbertsioek gora egin dutenez, gainera, talde handiek dute, amerikarrek, batik bat, gero eta funtzio nabarmenagoa liburu elektronikoak finkatzeko prozesuan. Hedatzeko joera horren ondorioz ezarri da Amazon Europako hainbat herrialdetan, besteak beste, Espainian 2011n. Argitalpen-industriaren bilakaera globalaren ondorioz, gero eta presentzia sendoagoa dute multimedia taldeek; testu idatziaz haragoko balio-logika batean txertatzen dute argitaratzea, eta ikus-entzunezkoa eta argitalpen elektronikoak ere ukitzen dituzte, eta gai dira merkatura sartzeko dauden oztopo finantzarioak aise gainditzeko.

<sup>3</sup> Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioa. *Espainiako kultura-ohitura eta -jarduerei buruzko 2011 inkesta*.

Europar bestelakoa da egoera, eta, oraingoz, ez dago arrakasta izan duen eredurik. Gero eta indar handiagoa hartzen ari den merkatu bat sortzen hasi da, hainbat herrialdetako talde argitaratzaile nagusiak daudela bertan, handituz doan eskaeraren ahalik eta zati handiena bereganatu nahian. Nahiz eta tituluen eskaintzak eta liburuaren ekoizpen-kateko elementuen presentziak gora egin duten, oraindik ez dira nahikoak Europako herrialde gehienetan. Ingalaterra da salbuespena, AEBekin partekatzen duelako hizkuntza-komunitatea. Paradoxa handia da Frantziak eta Espainiak, esate baterako, argitaratzeko tradizio zaharragoa izanik, oraindik hain zifra txikiak izatea eredu digital berrian. Labur esanda, zaila da merkatuan nagusi diren talde erraldoien gehiegikeriekin lehiatzea ez badira Europa mailako legegintzazko erantzun bateratuak ematen.

Azpimarragarria da, orobat, sektoreak eredu berriari egokitzeko<sup>4</sup>, urratsak eman izanagatik ere, negozio digitalaren aurka piztu diren zailtasun batzuk sektoretik bertatik sortuak direla.

### Tamaina- eta asimetria-kontua

Merkatuaren dinamikek kontzentratzera bultzatzen dute sektorea, eta talde handi batzuek erabakitzen dute taldeak jarraitu beharreko bidea. Agerikoa da liburuaren sektoreak EAEn ez duela beste autonomia erkidegoetako batzuetan besteko indarrik. EAEko argitalpen-produkzioa, izan ere, estatu osokoaren % 2,9 besterik ez da<sup>5</sup>. Estatu mailako banaketari ere eragiten dio kontzentrazioak, liburu banatzaileak 121 enpresa izanik, horietako 15ek fakturazioaren % 77 egiten baitute.

EAEko argitalpen-sektoreak xede duen merkatuak ere islatzen du zer-nolako esku hartze gaitasuna duen. Argitaletxe pribatuen salmenten % 57,8 EAEn bertara doaz. Bestalde, EAEn saltzen diren liburu guztien % 22,6 EAEko bertako argitaletxeek ekoitziak dira. Horien fakturazioaren % 72,6 euskarazko obrei dagokie.

Esandako indar-falta horretaz gain, argitaletxe independente eta txikiak oso ugariak dira; hizkuntza minorizatuen kasuan gainerako arazoei gehitzen zaien arazoa da gertakari hori.

<sup>4</sup> Argitaratzaileen Elkartearen Federazioa eta Germán Sánchez Ruipérez Fundazioa. *Liburu elektronikoaren digitalizazioari buruzko 2011 azterketaren* bigarren oidea.

<sup>5</sup> Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. *Panorámica de la edición española de libros*.

EAEko liburuaren sektorearen konfigurazioari erreparatu zergo, haren errealitate heterogeneoa eta asimetrikoa hautemango da, egoera bakoitzaren arabera ekintza desberdinak eskatzen dituenan<sup>6</sup>. Hala, gehien fakturatu dituzten eragileen % 20 diren 21 liburu-denden pisua nabarmena da, benetan, diru-sarreraren eta liburu-salmenten zifra handiei dagokienez. Gehienak denda-kateenak bada ere, bada tartean liburu-denda independenteren bat ere.

Argitaletxeen kasuan, berriz, 8 argitaletxek hartzen dute gehien fakturatu dituzten eragileen % 20 eta sektorearen bolumen totalaren % 66,4, eta liburuak saltzeagatik sartzen diren 10 eurotik 7 haiengana doaz. Horien ekoizpenak ere islatzen du multzoan duten pisua, bai argitaratzen dituzten nobedadei dagokienez, bai horien ale-kopuruari dagokienez, beste argitaletxeek baino tirada luzeagoak egiten baitituzte.

### **Sektore heldu bat birmoldatzeko beharra**

Salmenten bilakaerari buruzko datuek iradokitzen dutenez, sektorea puntu gorenean dago edota gainbehera dator. Izan ere, eskura dauden datuek diote salmentek behera egin dutela, eta eragileen informazioaren arabera, azken bi urteetan areagotu egin da gainbehera. Euskal Autonomia Erkidegoko argitaletxe pribatuak (110) 2010ean izan duten fakturazioa 2009an baino % 8,5 txikiagoa eta 2008an baino % 14,8 txikiagoa izan da. Azken bost urteetan % 14,6 gutxitu da haien fakturazioa. Euskarazko liburuari dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko 68 argitaletxe pribatuak izandako salmentak aurreko urtean baino % 6,7 eta 2006an baino % 8,5 txikiagoak izan dira.

Sektoreak mehetu beharra duela iradokitzen du egoerak, eta bide hori bera adierazten dute ekoizpen-datuek ere. Ekoizpenari lotutako ia adierazle guztiek egin dute atzera 2008ko balioen aldean; katalogoan bizirik dauden tituluen kopurua da salbuespena. 2010ean, argitaratutako eta saldutako ale-kopuruen arteko aldea % 11,3 handitu da 2009aren aldean. Euskarazko liburuaren kasuan, % 4,8 hazi da aurreko urtearekiko.

Hori dela eta, sektorea egiten ari den jardueraz gain, bera zigortzen duten politikak zuzentzeko neurriak eskatzen ditu, hala nola testuliburuaren doakotasuna kentzea (fakturazioari dagokionez erabakigarria da, gaztelaniazko fakturazio totalaren % 61,6 baita, eta euskarazkoaren % 71,0) eta beste zenbait, sektorearen lehiakortasuna areagotzeko.

Gehiegiz ekoiztearen arazoa ez da berria, eta arazo estrukturaltzat hartzen da. Besteak beste, itzulerak jasan ezinezko mailara iristea (% 20-50) eragin du horrek; ekoizpena, beraz, benetako salmentei egokitu beharra dago.

<sup>6</sup> Kulturaren Euskal Behatokia. *Ikuspegiak. Arteen eta Kultura Industriari buruzko estatistikaren datuen irakurketa analitikoa. 2009.*

Merkaturatzeko tresnen eraginkortasun eskasak eragiten du beste arazo estrukturaletako bat. Nahiz eta baliabide teknologiko ugari eduki (DILVE, SINLI eta CEGAL en Red) ez dira optimizatzen ez direlako oro har aplikatzen eta erabiltzen; hala, argitaletxeen eta liburu-denden arteko arazoak sortzen dira eta kaltea orokorra da. Paradoxa azpimarragarria: tresna hauek ez dira erabat aprobetxatzen dedikazio handia eskatzen dutelako; aldiz, Amazonek exijitzen dituen baldintzak, horiek bai, betetzen dira.

### **Analogikoen krisia ez dute digitalek eragin**

2010ean mundu digitalerako proiektuak abian zituzten EAEko argitaletxeek emandako datuek egoera hau islatzen dute: formatu digitalean 2.388 izenburu argitaratu ziren; katalogoko funtseko 586 izenburu digitalizatu ziren; formatu digitalean 614 izenburu merkaturatu ziren, guztira 393.439 euro fakturatzea ekarri zutela. Fakturazio horren erdia baino gehiago Giza eta Gizarte Zientzien alorrari dagokio, eta haren atzetik Zientzia eta Teknika, Unibertsitatea eta Zuzenbidea eta Giza Zientziak datoz.

Negozio moduan oraindik zeharo abiatu ez den (esan bezala, liburu elektronikoaren benetako kuota salmenten % 1 baino txikiagoa da) eta atari eta plataforma espezializatuak behar dituen jarduera bati egokitzen ari zaio sektorea, baina horrek, irakurleen ohiturak aldatzea ez ezik, BEZari, estandarrei eta autoretzari eragiten dieten neurriak ere behar ditu.

### **Euskaraz argitaratzea**

Sektorearen berezko arazo estrukturaleraino gain, merkatu murrizta izateak eragindako arazoak dituzte euskarazko liburuek. Joan Mari Torrealdaik (*Euskal Liburugintza 2010*) eskaintzen dituen datuen arabera, euskarazko 2.023 izenburu ekoitzi ziren 2010ean; 2009an baino 319 gutxiago, hain zuzen. Lehen aldiz ageri da lehen postuan haur eta gazteentzako literatura, 568 izenbururekin (produkzioaren % 28), hezkuntzako testuliburuak ondoren (% 24,3), giza eta gizarte-zientzien alorrekoak gero (% 19) eta helduentzako literatura atzetik, (% 14,5, 292 izenburu). Haur eta gazteentzako literaturari dagokionez, 10 izenburutik ia 6 itzulpenak dira. Produkzioaren % 11, 222 izenburu, hain zuzen, liburu elektronikoak izan ziren.

Salmentei dagokienez, 36,6 milioi inguru euro fakturatu ziren 2010ean (azaleko prezioan, BEZ eta guzti). Horietatik % 87,0 EAEko enpresa pribatuei dagokie. Beste autonomia-erkidegoetako argitaletxe pribatuek totalaren % 11,2 fakturatu zuten. Enpresa publikoek, berriz, salmenten % 0,6 egin zuten<sup>7</sup>.

<sup>7</sup> Euskadiko Editoreen Elkarte. VI. Euskarazko Argitalpenei buruzko Txostena - 2010.

## Liburu-denden bidegurutzea

Barómetro de ventas de las librerías en España 2011 delakoak dioenez, liburu salmentak 170.265.935,59 € mugitu zituzten guztira. Argitu behar da salmenta horien % 50, ia, funtseko liburu-denda orokorrek egin zituztela, eta hurbileko liburu-denda orokorrek, berriz, % 4,8 besterik ez zutela egin. Herrien biztanleriaren tamainari dagokionez, salmenten % 80 100.000 biztanletik gorako herrietan egin ziren. 2011n saldu zen ale-kopuruari dagokionez, estatu osoan 9.670.379 saldu ziren, horietatik % 5,9 EAEko saltokietan.

Esandako eraginkortasunik ezak eragiten die liburu-dendei eta, sektoreari laguntzeko berariazko neurriak aplikatu ezean, nekez gaindituko dira uneko zailtasunak. Bi kausa nagusiak, biak ala biak eredu makal bati lotuak, hauek dira: gehiegizko liburu-ekoizpena eta produktuen bizi-zikloa laburtu izana, alde batetik, eta kanaletik at geratzen den negozio-bolumena, bestetik. Gehiegizko produkzioak espazioa eta denbora exijitzen ditu, eta kudeaketa-gastua handitzen du. Bestalde, argi erakusten dute datuek zenbateko bolumena geratzen den saltoki hauetatik kanpo<sup>8</sup>.

---

<sup>8</sup> Euskadiko Editoreen Elkarte. *Euskadiko argitalpenei buruzko XVI. txostena. Barne-merkataritza 2010.*

### Inguruneko faktoreak

#### Aldeko elementuak

- Biztanleen hezkuntza-maila altua.
- Euskararen jakintzaren gorakada.
- Negozio-eredua berrikusi beharra.
- Gastu publikoarekiko mendekotasun eskasa.
- Kulturaren demokratizazioa.
- Irakurketa-indizeen gorakada.
- Maiz irakurtzen dutenak ugaritu izana.
- Negozio-eredu berritzaileak.
- Hizkuntza-komunitateen araberako merkatu-hobiak zabaltzeko aukera.

#### Kontrako elementuak

- Merkatu natural txikia.
- Lurraldekako asimetria (biztanleria eta euskararen jakintza-maila).
- Kultura-kontsumorako egoera kritikoa.
- Kulturak ospea eta balioa galdu izana.
- Kultura-aniztasuna mugatu izana.
- Liburu gutxiago erostea.
- Merkatu digitala korporazio handien mende egotea.
- Arrakastako eredurik ez Europan.
- Eroste-esperientzia negatiboak.

## EAE-ko liburuaren sektoreko bertako faktoreak

### Aldeko elementuak

- Elkarlaneko proiektuak egiteko eta sareak sortzeko aukera.
- Industrian pisuko eragile bultzatzaileak badira.
- Liburuaren industriaren tradizioa eta errotzea.
- Merkaturatzea hobetzeko moduko baliabide teknologikoak badaude.
- Hizkuntza-komunitateen araberrako merkatu-hobiak zabaltzeko aukera.
- Sektoreak eginak ditu arlo digitalean lekua egiteko saioak.
- Euskarazko merkatuan gero eta indartsuagoa da haur eta gazteen segmentua.
- Euskarazko liburuaren eroslearen fideltasuna.
- Badira kateak eta bada liburu-denden sare handia.
- Kultura-kontsumoa suspertzeko kanpainak.

### Kontrako elementuak

- EAEko sektoreak indar txikia du.
- Sektorea oso sakabanatua eta ahula da.
- Gaitz endemikoak: gehiegizko ekoizpena eta informazio komertzialik eza.
- Itzulkinik gabeko inbertsioak behar dira.
- Euskararen merkatua murrizta da.
- Ekoizpenerako laguntzen beharra.
- Euskarazko produkzioaren ikusgarritasun txikia.
- Euskara etengabe normalizatzen aritu beharra.
- Liburu-saltzaileen kanaletik kanpoko salmenten pisu handia (% 40).
- Gaur egungo ereduak espazioa eta dedikazioa eskatzen du liburu-dendetarako.
- Profesionalen aholku- eta prestakuntza-beharra.



Gogoeta estrategikoko prozesu orok ditu jarduerak gidatu eta bere identitate-ezaugarriak taxutzen dituen funtsezko printzipioak. Ardatz estrategikoei eta proposatzen diren jarduerari zentzua ematen dieten balioak dira.

### **Irakurtzearen ospea**

Santiago Alba Ricok dioen bezala<sup>9</sup>, irakurtzearen alde behin eta berriro egiten diren deiek estutasun bikoitza uzten dute agerian: liburuak mehatxatuta ikusten ditugu eta ematen du inoiz ez dugula gure bizioaren aldeko argudio sinesgarriak aurkitzen. Ez da atzo goizeko kontua; Zizeron bera ere kexu ageri zen erromatar gazteek zeinen gutxi irakurtzen zuten ikusita.

Fenomenoa berria ez bada ere, eta guztia galduta ez badago ere –bestela irakurtzeko ohiturei buruzko inkestetan inork ez luke esango benetan irakurtzen duena baino gehiago irakurtzen duela–, badaude zantzuak iradokitzen dutenak irakurtzeak bere son onaren zati bat galdu, eta sektoreak horri aurre egin beharko dio, ardura hutsagatik bada ere.

### **Irakurleen komunitatea**

Dagoeneko existitzen denaren garrantzia ikusarazi behar da. EAEn, irakurle komunitate zabala dago liburuaren inguruan: irakurketa-klub, liburutegi, kultura sustatzen duten liburu-denda, kalitateko argitaratzaile, autore, itzultzaile, irakasle, irakurle, kultura-kudeatzaile, ikertzaile eta abarrek osatutako sare sarria. Euskadiko Irakurketa Plana aurkeztu da 2012an. Horiek dira jokatzeko ditugun kartak, eta horietan babestu behar ditugu eragileek kultura-munduan duten artekari- eta agintari-funtzioaren garrantzia balioesteko.

<sup>9</sup> Alba Rico, S. *Leer ¿para qué?* Rebelionen argitaratua, 2008.

## Elkarlana

Elkarlanean jarduteko borondatea da sektorearen etorkizunari heltzeko funtsezko elementua. Borondate hori engaiatze eta atxikimendu, energia eta grina bihurtuko da. Exijentzia- eta ardura-kontua da elkarlana, aldaketak eragiteko norberaren errealitatetik harago joateko gaitasuna izatea, alegia. Daniel Innerarityk dioenez, «gehiiegizko esposiziopean bizirik irauteko tresna elkarlana da, gauza komunei eskaintzen diegun arreta. Babesgabetasuna, gaur egun, bakardadea da, zeharo subiranotzat hartuagatik ere»<sup>10</sup>.

Alde batetik, sektore barruko eragileen arteko elkarlana behar da lehendik datozen eraginkortasunik ezak gainditzeko; halaber lankidetzeta-proiektuak sustatzea eta etorkizuneko ekimenetarako muin izango diren sareak eraikitzea. Bestalde, aipatu diren mehatxu eta ahultasunek konponbide zaila dute eragile publikoen eta pribatuen arteko elkarlanik izan ezean. Katalizatzailearena egin behar luke administrazioak, sektorearen garapena politika berritzaileen bidez eta proiektu partekatuak eta enpresen arteko fusioak bultzatuta.

## Berrikuntza eta proaktibotasuna

Sektore pribatuari laguntzeko are neurri berritzaileagoak eskatzen ditu krisi ekonomikoak. Sektoreari bere indarraren ikuspegitik, hazteko gaitasunetik eta garatzeko ezinbesteko independentziaren ikuspegitik heltzea da itzuli beharrik gabeko diru-laguntzetatik harago doazen tresna finantzarioak eta enpresak garatzeko zerbitzuak sortzearen aldeko apustua egiteko oinarria.

Jakinak izanagatik oraindik ere konpontzeke dauden eraginkortasun akats batzuk dauzka aspalditik liburuaren negozio-ereduak. Euskarri digitaleko mundua eta horren inplikazioak gehitu zaizkie horiei. Hala, prozesuak hobetzeko eta teknologia optimizatzeko proiektu pilotuak, konponbideak eta zerbitzu berritzaileak sortzea da bide posible bakarra mundu guztiak pentsatzen duenean arazo estrukturalak, eredu digitalak eta krisi ekonomikoak bat egin dutela bazterrak nahasteko.

## Zeharkakotasuna

Eragile-sorta zabal bati eragiten die liburuak, hainbat arlo biltzen baititu: kultura, hezkuntza, industria, merkataritza, ekonomia eta enplegua. Zeharkako planteamendu batetik heltzea eskatzen du horrek. Sektoreko eta administrazioeko eragileek partekatu behar dute lan hori,

<sup>10</sup> Innerarity, D. *La exposición universal*, El País, 2012ko abuztuaren 29a.

gaitasuna baitute beren ahalegina bategiteko eta liburuaren egungo errealitatea aldarazteko. Herri Administrazioari dagokionez, planteatzen diren proposamenek liburuaren sektoreari ez ezik, hainbat sail administratibori ere eragiten diete: Kultura Sailari, Industria, Berrikuntza eta Turismo Sailari eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, hain zuzen ere.

## 2.2.

## SOLASKIDEAK ETA LANKIDETZARAKO ESPAZIOAK

Ez dago zalantzarik liburuaren garrantzi kulturalari eta ekonomikoari buruz. Egungo testuinguru ekonomikoan, sektorea bere buruari eusteko gauza izango bada, administrazio publikoen, enpresa pribatuen eta sektorearen beraren bilbearen ekarpenak batu eta batera erabili behar ditu.

- Administrazioak kudeatzeko gaitasuna ekar dezake, halaber azpiegitura eta komunikabide publikoetako espazioa; bermatu behar du kulturaren sektorearen eta administrazioaren artean fluxu iragazkorrak egongo direla eta zeharkako jardunbideak sustatu behar ditu.
- Enpresa pribatu handiek proiektu jakinak finantzatzeko funtsak ekartzen lagun dezakete.
- Sektorearen konpromisoa, bestalde, jarduera-egutegi bat adostera bideratzen da.

### **Intrasektoriala**


Sektore-mailako egitura operatiboa behar da, etorkizunean merkaturatzeari lotuta egongo den esparru baterako oinarria. Teknologia-kontuetako aholkulariarena egin lezake mintzaleku praktiko horrek, gainerako eragileek artekari jarduteko. Liburuaren Ganberak gidari izan behar luke prozesu honetan, hartara, sektoreko eragileen arteko hitzarmen batetik abiatuta, espazio hori dinamizatzeko funtzio nagusia izateko.

### **Intersektoriala**

Lehenago esan bezala, jardueran zuzenean nahiz zeharka parte hartzen duten eragileak hainbat politika desberdin dituzten arloetatik datoz, eta, usu, ez dute elkarrekiko loturarik izaten. Horrexegatik behar dira lankidetzak-espazioak lan-ildo berriak zabaltzeko.

Elkarren arteko intersekzioak eta konexioak dituzten lau ardatz estrategikotan antolatzen da EAEko liburuaren sektoreari buruzko gogoeta.

- 1. ardatza. Irakurtzearen eta liburuaren balioa.** Norbanako apertsona oso moduan prestatuko bada eta gizarteak aurrera egingo badu, behar diren funtsezko elementuetako bat da irakurketa. Haren balioa agerian utzi behar da eta prestigioa eman behar zaio, dakartzan onurak proiektatuz.
- 2. ardatza. Liburuaren negozio-eredua.** Liburuaren kateak bere prozesuak hobetzeko eta informazioa jasotzeko duen premiaz gain, sektoreak baditu arazo gehiago ere: EAE duen tamaina eskasa eta zatiketa. Premia horiek sektorearen beraren ekimena eta Administrazioaren laguntza behar dute.
- 3. ardatza. Euskarazko liburuak.** Azken urteotan euskaraz irakurtzeko aukera gehiago dago eta aukera horiek gainera, hobeak dira. Haatik, euskarazko liburugintzak diskriminazio positiboko politikak behar ditu bere merkatuaren errealitatearekin bat.
- 4. ardatza. Etorkizun oneko liburu-dendak.** Lehen mailako gune kulturalak dira liburu-dendak. Artekari garrantzitsuak direnez, etorkizunari begira kokatzen laguntzeko ekimenak behar dituzte.



Ardatz estrategiko bakoitzean **proiektu estrategikoak** nabarmendu dira. Halakotzat jo dira ikuspegi osagarrietatik helduta irakurleen eta, oro har, liburuaren sektoreko komunitatea sendotzen saiatzen direnak eta, beraz, etorkizuneko erronka estrategiko nagusiak dakartzatenak.

- **Irakurleekiko** lana.
- **Hezkuntza-sarera** inguratzea.
- **Merkaturatzea** hobetzea.
- **Euskarazko liburuentzako laguntzen** eredia hobetzea.
- Liburu-denda independenteei eta funtseko **liburu-dendei laguntzeko** neurriak.

Lehenik, proiektuetako bik erkidegoko eta harremanetako izaera dute. Alde batetik, irakurtzearen inguruko esperientziak eta jardunbide egokiak, *irakurle-komunitate* kontzeptuan oinarrituak, balioestea litzateke helburua. Bestalde, hezkuntza-sare bat abian ipintzearen garrantzia azpimarratu du sektoreak, zeren testuliburuaren inguruan hartutako erabakiek eta eduki digitalak sartu izanak guztientzat kaltegarria den urruntze bat eragin baitute arlo horretan.

Bigarrenik, euskarazko liburuaren ekoizpenarekin eta merkaturatzearekin lotutako hobetze-proiektuak behar dira. Hala, liburuaren inguruko informazio komertziala hobetzea proposatzen du sektoreak, horrek balio-kateko elementu guztiei –argitaratzaile, banatzaile zein saltzaile– emango bailieke onura eta gaur egungo eraginkortasun faltetikiko ezekiko hobekuntza argia izango bailitzateke. Bestalde, euskarazko liburuaren delak eta, azken urteotan jarraitutako ildoari eutsi behar zaio, laguntza-eredua hobetuta.

Azkenik, liburu-dendek premiazko esku-hartzea behar dute, saltokiak ari baitira gehiena jasotzen inguruko eta sektorearen barruko faktoreen eraginak, guztiak batera, eta nekez iraungo baitute berariazko laguntzarik ezean.

Sektorearen konpromisoa izan behar dute oinarri proiektu hauek, eta Administrazioaren sostengua beharrezkoa dute, egungo egoerari eta datozkien erronkei aurre egingo badiete.

Gogoeta bideratzen duten lau ardatz estrategikoak hainbat jardute-lerroren bidez gauzatuko dira.

ardatz estrategikoak	jardute-lerroak
<b>Kulturaren eta liburuaren balioa</b>	Komunikabideetako ikusgarritasuna
	Aldaketa sozialak ikertzea
	Kulturaren kontsumoari laguntzea
	Sustapen-jarduera koordinatuak antolatzea
<b>Liburuaren negozio-eredua</b>	Elkarlaneko eta kontzentrazioko proiektuak sustatzea
	Tresna finantzarioak eta enpresak garatzeko zerbitzuak sortzea
	Berritzeko eta hobetzeko prozesuei laguntzea
<b>Euskarazko liburuak</b>	Euskarazko katalogoko funtsak digitalizatzeko berariazko plana
	Saltokietan eta liburutegietan presentzia eta ikusgarritasuna areagotzea
	Funts komertzialen itzulpenak bultzatzea
<b>Etorkizun oneko liburu-dendak</b>	Kanal honen bidezko komertzializazioa handitzea
	Bikaintasuna aitortzea
	Profesionalak trebatzea
	Liburu-azoken eredia berrikustea

### 3.1.

## IRAKURTZEAREN ETA LIBURUAREN BALIOA

Errezeloa dago, noizetik behin, kulturak eta liburuek garai batean izan duten ospe eta sona ona indarra galtzen ari direla. Baliteke ondasun horiek gero eta errazago lortzearen albo-ondorioa izatea: aurarekin batera miresmena ere galdua lukete. Gaur egungo bizkortasunak ere zerikusia izango du noski; hain denbora laburrean zaila baita arrastoa uztea. Baumanek dio gure errutinak hain bizkor aldatzen direnez ez dugula denbora nahikorik ohiturak errotzeko. Hala, balio batzuek, hala nola arte-lan kontzeptuari eta kulturari hain estu lotutako iraunkortasunak, beren zentzua galdu dute, nolabait.

Poe-ren ipuinean bezala<sup>11</sup>, begi-bistan dugun hori izaten da, batzuetan, ikusten zailena. Gutako askori, garrantzitsuak ez ezik, ezinbestekoak ere egiten zaizkigu liburuak eta irakurtzea. Izan ere, estatistikek erakusten dutenez, ugaritu egin dira maiz irakurtzen dutenak. Horren garrantzia azpimarratu behar da, zein erakargarria den nabarmendu, sormenaren eta autoretzaren balioa, zailtasuna, exijentzia, kalitatearen zorrozatasuna eta irakatsi digutena eta biziara dizkiguten une goxoak agerian utzi. Asko eskatzen duen bizioa da, denak bezala. Denbora, sakontasuna eta ahalegina behar du, baina asko itzultzen du ordainetan.

## PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

**Irakurleekiko lana.** Oinarri hartuko dugun ideia nagusia irakurleen komunitatea da. Existitzen dela ikusarazi behar zaio, irakurtzearen harrotasun soziala sustatu, agintzearen eta artekaritzaren balioa azpimarratu. Badira baliabideak, hala nola irakurketa-klubak, kultura sustatzen duten liburu-dendak, liburutegiak, argitaratzaileak, hezitzaileak... Kontua ez da komunikazio-kanpainak –mezu eztabaidagarriak dituztenak, maiz– egitea, besterik gabe, baizik eta komunitateari babes orokorra ematea.

Euskadiko Irakurketa Plana izan liteke halako ekimenak biltzen dituen esparrua.

**Hezkuntza-sarera inguratzea** Testuliburuaren doakotasun-politikek sektorea itotzen ari den eredia ekarri dute; gainera, itzulerarik gabeko puntu batera iritsi litekeen arazoa dakarte berekin: edukien sorrerak balioa galtzea eta, horren ondorioz, haien kalitatea gutxitzea. Hala, berriz ere azaldu da testuliburuaren maileguen inguruko gaur egungo egoera desblokeatu beharra dagoela. Kontua ez da eztabaida doakotasunera mugatzea (bai ala ez), ez eta kostua gurasoei kargatzea ere, baizik eta kostua arinduko duen eta aldi berean industriari bizitzeko aukera ematen dion eredia adostea.

Hezkuntzari lotutako beste proposamen bat da hezkuntzarako eduki digitalak sortzen laguntzea. Ez da ahaztu behar argitaletxeek badakitela zer-nolako edukiak behar diren digitalizatzeko-prozesuak eraginkorrak izan daitezen.

Hezkuntza-sarearekiko lanak bere barruan biltzen du irakurketa dinamizatzeko hezitzaileekin batera esku-hartzea edukien hautespena gidatuz. Izan ere, irakasleekiko lana argitaratzaileekin lotuta egon izan da, ohiz. Badira kalitateko baliabideak, hala nola *Literatura Unibertsala*, behar hainbeste ezagutzen ez den arren.

Hezkuntza Sailarekiko harremana desblokeatu beharra dago sektorearekiko elkarlan- eta akordio-sare bat ehotzeko.

<sup>11</sup> Eskutitz lapurtua. *Kontakizun apartak*.

## Jardute-lerroak

- **Liburuak eta irakurketak** komunikabideetan **duen ikusgarritasuna areagotzea**. Gizarte-pedagogiako kanpainak abiaraztea, zeinen bereizgarriek mezu berriz betetako balio-katalogo propioa izango baitute. Sare sozialak dira aztertu beharreko beste bide bat, irakurketa partekatzeko aukera ugaitzen dutenez. Izan ere, komunitate kontzeptu horretatik beretik elikatzen dira, eta irakurle-komunitate batek izan dezakeen sortze-aukera azkarrena eta demokratikoa dira. Orain artean, kulturaren industriak ez du jakin nola baliatu behar bezala sareek eskaintzen duten aukera.
- **Kulturaren kontsumoa bultzatzea eta**, zehazki, **liburuak erostea**. Kultura Bona bezalako ekimenak balioetsi egin dira, batez ere liburu-saltzaileen sektorean. Ondo letorke proposamen horiek urte osora zabaltzeko formulak aplikatzea, Gabonetako kanpainan burutzen direnak beste garaien aldean berez ere salmenta altuak dituen unean egiten baitira.
- **Dinamizazio- eta sustapen-jarduera koordinatuak antolatzea**. Argitaletxeen promozio-jarduerak eta administrazio publikoen agenda kulturalak ezagutu behar lirateke liburu-dendekin batera jarduera koordinatuak antolatu ahal izateko. Beste lan-ildo baten helburua da liburu-denden, ikastetxeen eta liburutegien arteko harremana indartzea, irakurketa sustatzeko jarduera bateratuak antolatuta.
- **Kulturari eragiten dioten ohitura-aldaketak ikertzea eta horien aurrean erne egotea**. Iraultza digitalak irakurtzeko moduetan eta ohituretan, erosteko portaeran eta edukietarako sarbidean eragin dituen aldaketek kualitatiboki ikertzeko modu berriak exijitzen dituzte, praktika horiek esplikatu badira.

EAEko liburuaren sektoreak ahaleginak bateratzea eta lankidetzako prozesuak sustatzea behar du gehiegizko zatiketa saihesteko eta proiektu handiei ekiteko gaitasuna handitzeko.

Liburuaren ekoizte-, banatze- eta merkaturatze-ereduak eraginkortasuna falta du, eta horrek ezin eramaneko itzulera-maila eragiten du. Izenburu gehiegi ekoiztea, haien bizi-zikloa laburtzea eta merkaturatzeko informazio nahikorik ez izatea dira hobetu beharko liratekeen zenbait arlo.



Argitaratzaileen, banatzaileen eta saltzaileen artean informazioa partekatzea ahalbidetuko duten datuen kudeaketa-sistemak sustatu behar dira. Informazioa bateratzeko eta guztiek jarraitu beharreko protokoloak ezartzeko gutxieneko hitzarmenak finkatzea lehenetsi behar da. Informazioa kudeatzeko sistemak egonagatik ere, zaila egiten zaie argitaletxe txikiei tresna horiek erabiltzea, berez txikiak diren plantiletan eskatzen duten dedikazioa handia delako. Liburu-dendak, bestalde, iritsi ezinik ibiltzen dira egunero jasotzen duten nobedade-kopuru handia dela eta.

Informazio komertziala hobetzeari begira, lagungarria izan daiteke LibriData proiektuaren adibidea, Kataluniako liburuaren sektoreak eta Administrazioak elkarrekin egindako apustua.

## PROIEKTU ESTRATEGIKOA

**Merkaturatzerako informazioa hobetzea.** Sektorerako egitura operatibo bat sortzea proposatzen da stocken kudeaketa hobetzearren eta liburu-dendek zer titulu saltzen dituzten jakitearren, hala liburuaren komertzializazioa optimizatzeko. Liburu-dendetako prozesu administratiboak arintzea, liburu-salmentei buruzko informazio eguneratua eta fidagarria eskaintzea eta argitaratzaile, banatzaile eta saltzaileen arteko harreman komertzialak hobetzea litzateke helburua. Teknologiaren inguruko kontsulta-organoa ere izan liteke topaleku praktikoa hau.

Liburuaren ganbera izango litzateke proiektuaren sustatzailea, Administrazioaren laguntzaz (industria- eta berrikuntza-arlotik).

## Jardute-lerroak

- Liburuaren industria sendotzeko **kontzentrazio-prozesuak, enpresen arteko fusioak eta elkarlaneko jarduerak sustatzea.** Beste hainbat sektoretan bezala, elkarlanak lagundu litzake administrazioak norabide egokian doazen elementu diskriminagarriak sartzeak, hala nola: Baterako argitalpenak, bilduma partekatuak, prozesuen hobekuntza... Mailegu finantzarioak egin litzake prozesu horietarako, Katalunian ICIC-en bitartez kudeatzen direnen parekoak.
- Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen eredutik harago doazen **tresna finantzarioak eta enpresak garatzeko zerbitzuak sortzea.** Beharrezkoa da Administrazioak tokiko produkzioari laguntzeko eta funtsa mantentzeko finantzazio-lerroen bidez laguntzea. Ekarpak itzulgarriak izan litezke formulatuko bat: horiek onartzeak berekin ekarriko luke emandako funtsak ustiapen komertzialaren emaitzen arabera itzuli beharra. Laguntza-tresna mistoa dira, alde batetik kreditua baitakar, proiektuaren emaitzak gorabehera

beti itzuli beharrekoa, eta bestetik diru-laguntza, proiektuaren arrakasta ekonomikoaren arabera itzuli beharrekoa. Enpresak garatzeko zerbitzuei dagokionez, berriz, beste sektoreetan egindako esperientziak analizatu eta liburuaren sektoreko enpresetan aplikatu litezke.

- I+G+b-ari, prozesu teknikoari, liburu digitalari eta marketin digitalari lotutako **berrikuntzari eta hobetze-prozesuei laguntzea**. Sektoreak badaki mundu digitalean egon behar duela ikusgarritasuna izatearren, oraingoz negozioerik ez ekarriagatik ere. Horrexegatik behar dituzte laguntza publikoak funtsak digitalizatzeko, banaketa-plataformak sortzeko eta horiek mantentzeko proiektuek. Azpiegitura teknologiko nabarmena behar duten prozesu garestiak dira, eta sektoreko kide gehienentzat oso kostu handia dakar. Liburu digitala dela eta, kontuan izan behar da liburutegiek mailegu digitalean duten lana eta etorkizunean modu hori loratzen denean horrek izango duen eragina.

### 3.3.

## EUSKARAZKO LIBURUAK

Euskarazko liburuaren ezaugarriak biztanleriaren profil soziolinguistikoaren isla dira: merkatu murriz eta heterogeneoa, haur eta gazteentzako liburuen oso mendekoa. Azpimarragarria da Joan Mari Torrealdaireren 2010eko datuen arabera lehen aldiz aurreratu zaiola haur eta gazteen literatura (ekoizpenaren % 28, aurreneko postuan) hezkuntzako testuliburuari (% 24,3, bigarreanean).

Nolanahi ere, euskarazko liburuaren etorkizuna ez da bakarrik argitaratzen diren izenburuen araberakoa izango; aitzitik, funtsezkoak izango dira kalitatea eta merkaturatze egokia. Euskarazko eskaintzaren eskuragarritasuna dela eta, agerian utzi behar da izenburu komertzialak itzultzearen beharra. Gaur egun ez dago laguntzarik arrakastako obra gehienak idazten diren hizkuntzetarako. Bestalde, *Literatura Unibertsala* bilduman, esaterako, exijitzen den kanona oso zorrotza da; agian malgutasun pixka bat eska liteke kontsumo estandarra hobe dadin.

Ikusgarritasunari dagokionez, aldiz, hizkuntzaren jakintza-mailarekin zerikusia du noski, eta eskualdearen arabera aldatzen da beraz. Zailtasun handiak ditu euskarazko liburuak saltokietan –toki jakin batzuetako liburu-dendetan, aireportuetan, ospitaleetan...– toki egokia lortzeko, bai eta funts bibliografiko zabala izateko ere. Aldeko tratamendu diskriminatzailearen premia du, beraz, autoretza sendotzearen eta sustatzearen alorrean.

Merkaturatzeari dagokionez, berriz, euskarazko liburuen berri euskaraz emateko eske-  
marekin jarduten du oraindik sektoreak, eta ez du aintzat hartzen euskarazko irakurle askok  
eta askok erdarazko prentsa irakurtzen dutela.

## PROIEKTU ESTRATEGIKOA

**Laguntzen eredia hobetzea.** Euskarazko liburuak ekimen publikoak eta pribatuak  
adostutako sinergia etengabeak behar ditu industria kultural moduan sendotu eta  
egonkortuko bada, haren merkatu naturalak berez errentagarria izatea oztopatzen baitu.

Ekoizteko laguntzak eta finantziazioaren inguruan azken urteotan ekindako bideari jarraitu  
behar litzaioke, orientabidea emanda eta irizpide industrialak eta finantzarioak pixkanaka  
aplikatuta.

Komeni da Administrazioan euskararen eta kulturaren ardura duten arloek hobeto  
koordinatuta jardutea.

## Jardute-lerroak

- **Administrazioak euskara mundu digitalean egotearen aldeko apustu argia egitea:** euskarazko katalogoko funtsak digitalizatzeko berariazko plana. Administrazioak mundu digitalaren inguruan laguntzearen aldeko argudio orokorrei euskararen berezi-  
tasuna gehitu behar zaie. Lehenago esan bezala, prozesu garestiak dira, eta katalogoko funts zabala digitalizatuta izango bada, laguntza ezinbestekoa da.
- **Saltokietaneuskarazkoliburuenpresentziaetaikusgarritasunahanditzea.** Berez zaila bada liburu-dendetan tokia egotea nobedadea ez den guztiarentzat, are txikiagoa da euskarazko produkzioa saltokietan ikusgarri egoteko aukera. Bestalde, liburutegi publikoetan ere egotea bermatu behar da. Euskarazko liburuaren ikusgarritasunarekin lotuta dago informazio komertziala hobetzeko beharra ere. Gaztelaniazko prentsan ia ez da euskarazko obrei buruzko informaziorik eskaintzen; horrela nabarmen murrizten da haien eragin potentziala.
- **Funts komertzialen euskarazko itzulpenei laguntzea,** *Literatura Unibertsala* bildu-  
marekin egin den bezala. Proiektu horri esker posible izan da literatura unibertsaleko hainbat obra adierazgarriko katalogo zabala euskaraz irakurtzea. Interesgarria litzateke arrakasta komertziala izan duten lanen euskarazko itzulpenak izatea. Haatik, itzulitzearen kostu handiak ezinezko bihurtzen du titulu horiek merkatu-prezioan eskura jartzea, ez bada berariazko laguntzen bidez zerbait egiten

Ezin baztertua da, gaurkoz behintzat, liburu-dendaren funtzioa liburuaren balio-katean, nahiz eta negozio digitalaren eredu funtzio hori zeharo aldatuko den. Liburu-saltzaileak irakurketa sustatzen eta obrak gomendatzen duen zeregina ere funtsezkoa da, berak baitu irakurleekiko zuzeneko kontaktu fisikoa. Dena dela, liburu salmentak dakarren beherakadaren ondorioz liburu-saltzaile askok liburu-saltzaile izateari utzi behar izan diote, negozioa jasangarria izango bada jardura dibertsifikatu behar baitute. Egia da oraintsu zenbait establezimendu zabaldu direla, baina ez da ahaztu behar kateek herri handietan irekitakoak direla. Beraz, liburu-dendek kultura-artekari moduko lana egiten jarraitzea nahi bada, haiei eman beharreko laguntza irmoa ezin da baliabide erretoriko hutsa izan; aitzitik, une hauetan bizi duten egoera hobetzen lagunduko duten neurriak hartu behar dira.

Aurretiko diagnostikoan azaldu zen nola kanal honetatik at egiten diren salmentek (% 40 inguru baitira) egoera kritikoan ipini dituzten liburu-denda asko, bereziki hurbilekoak. Enpresei eta erakundeei zuzenean eginiko salmentek gora egin dute, horien artean ikastetxeei saldutako testuliburuenei. Premiazkoa da, halaber, liburuaren komertzializazio-informazioa hobetzea, haren espazio- eta dedikazio-beharrek ito egiten baitituzte liburu-dendak.

Aldeak alde, gure inguruari argi egiteko ekar litezkeen neurriak hartzen ari dira Frantzian. Esan bezala, posiblea ez ezik, beharrezkoa ere bada finantziario-eredu jasangarriak bilatzea Administrazioaren, sektorearen eta enpresa pribatu handien artean. Esate baterako, Frantziako ADELK elkarteak (*Association pour le Développement de la Librairie de Création*) argitaratzaile bazkideen, liburu-saltzaileen eta beste erakundeen ekarpenez finantzatzen da, eta horiei gehitzen zaizkie Administrazioak ematen dituen laguntzak.

### PROYECTO ESTRATÉGICO

**Liburu-denda independenteentzako eta funtseko liburu-dendentzako laguntza tekniko eta finantzarioa.** Funtseko liburu-denden zeregina oinarritzakoa da herritarrek eskaintza editorial zabala eta ugaria izan dezaten. Merkatuak salmenta guztiak izenburu gutxitan kontzentratzeko erakutsi duen joeraren ondorioz, gero eta korapilatsuagoa da honelako saltokien bideragarritasuna, Administrazioak berariazko laguntza-neurriak erabaki ezean.

Frantziako ADELCO eredua eta Kataluniako Llibreriactiva plana izeneko ekimenen edukien artean badira finantza-sostengua ematen duten formulak, eta badira instalazioak modernizatzen, teknologia ekartzen, funtsak sendotzen eta komertzializatzen eta trantsizioak eragindako arazoei aurrea hartzen laguntzen duten formulak ere.

## Jardute-lerroak

- **Saltokietarako trafikoa handitzeko neurriak hartzea.** Partikularrek gutxiago erosteaz gain, kontuan hartzen badugu badirela liburuen salmenta beren kanal naturaletik desbideratzen duten zenbait ohitura, akabo negozio askoren bideragarritasuna. Liburu-dendak baztertuta enpresa eta erakundeei egiten zaien zuzeneko salmenta ere arazoa da liburu-dendentzat. Halako salmentak murriztea litzateke helburua, bereziki testuliburuena, eta liburutegien erosketak liburu-denden bitartez gauzatzea.
- **Erreferentziako liburu-denden bikaintasuna aintzatesteko aukera aztertzea.** Interesgarria da Frantziako LiR kalitate-zigiluarekin izan duten esperientzia. Liburu-denda independenteen lana aintzatestea, balioestea eta laguntzea da haren helburua. Zigilua eskuratzeko gutxieneko liburu-fakturazio bat, gutxieneko funts bat stockean, gutxieneko espazio bat eta gutxieneko langile-gastu bat gainditu behar dira; halaber, urtean zehar egiten den dinamizazio kulturala balioesten da. Horren truke, aintzatespen publikoaz gain, tasa profesionala ordaintzetik salbuetsi egiten dira eta diru-laguntzak jasotzeko aukera ematen zaie.
- **Liburu-saltzaileen hasierako prestakuntza eta prestakuntza jarraitua sustatzea** con formatu berritzaile eta haien ezaugarrietara moldatuekin, zeren neurri handi batean autodidaktak baitira. Egungo liburu-dendak modernizatzerako bideratutako kontu interesgarriak marketina, kalitatea, sare sozialak eta informatika izan litezke. Bestela, bibliotekonomiari lotutako graduondoko titulu espezializatuak eta lanbide-heziketako modulu espezifikoren bat eskaini litezke.
- **Liburu-azoketarako formula berrituak proposatzea;** beste ingurune batzuetan tradizio luzeko eredua izanagatik, EAEn oraindik berriro daitezke. Ereduren beraren urradurari gehitu behar zaio liburu-saltzaileek egiten duten ahaleginak ez duela beti behar adinako ordainik jasotzen. Liburuak eta autoreak herritarrei, oro har, hurreratzeko ordezkotzat formulak azter daitezke.

## INGURUNEARI BURUZKO DATUAK

### EAEko biztanleria

- 2010ean 2.169.38 biztanle ziren, honela banatuta: % 53,1 Bizkaian, % 32,3 Gipuzkoan eta % 14,6 Araban.
- % 17,2 20 urte baino gazteagoak dira, % 63,7 20 eta 64 bitartekoak eta % 19,1, azkenik, 65 urte baino zaharragoak. Etorकिनak biztanleria osoaren % 6,6 dira.
- Bost lagunetik batek unibertsitate-mailako ikasketak ditu; 2006tik hona 2 puntuz handitu da tasa, % 21,5etik % 23,3ra. Horietan, 5etik 4k 20 eta 55 urte arteko adina dauka.

### Kontsumoaren beherakada

- 2006 eta 2010 artean, familien batez besteko gastua % 2,6 gutxitu zen INEren Familien Aurrekontuen Etengabeko Inkestaren emaitzen arabera.
- 2010ean, familien batez besteko gastua % 1,5 urritu zen aurreko urtearen aldean, eta aisia, ikuskizun eta kulturakoa, berriz, % 3,7.
- Zuzeneko laguntza ekonomiko publikoa EAEko liburu-sektoreari: 2008ko datuen arabera, 4,2 milioi euro bideratu ziren literaturara eta argitalpena –guztiaren % 0,8–, biztanleko 1,9 €, hain zuzen. Liburutegiek 34,2 milioi euro jaso zituzten (biztanleko 15,7 €).

### Liburuak irakurtzeko eta erosteko ohiturak

- 14 uretik gorako Espainiako biztanleen % 90,4k dio gutxienez hiru hilean behin irakurtzen duela<sup>12</sup>, euskarria, formatua eta materiala gorabehera.
- Biztanleriaren % 10ek dio ez duela irakurtzen, edozein delarik ere euskarria edo materiala.

<sup>12</sup> Federación de gremios de editores de España. *Hábitos de Lectura y Compra de Libros en España 2011*.

- Egunkariak dira gehien irakurtzen direnak, herritarren % 77,6k irakurtzen baititu; hurrena datoz liburuak (% 61,4), aldizkariak (% 46,3) eta komikiak (% 12,6).
- Sexuka, gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino gehiago irakurtzen da (% 92,0 eta % 88,8, hurrenez hurren). Materialari dagokionez, emakumeek liburuak (% 65,1) eta aldizkariak (% 51,6) irakurtzen dituzte batik bat, eta gizonezkoek, berriz, egunkariak (% 83,9) eta komikiak (% 16,0).
- Aisialdiko irakurketaren indizeak biztanleen % 58 hartzen du, eta azken urtean irakurritako liburuen kopurua, batez beste, 10,6 da.
- 2011n erositako liburuen batez besteko kopurua 10,6tik 9,6ra jaitsi zen, nahiz eta erosleen ehunekoa orduan baino 1,1 puntu handiago izan.
- Eduki digitalen irakurketari dagokionez<sup>13</sup> 14 urtetik gorako Espainiako biztanleriaren % 52,5ek irakurtzen ditu euskarri digitalean dauden edukiak. Egunkari digitalak dira gehiena irakurtzen direna, % 34,3k irakurtzen baititu. % 6,8k dio euskarri digitaleko liburuak irakurtzen dituela.

### 1. taula. Azken urteko kultura-ohituren konparazioa (%)

	Liburuak irakurtzea	Kontzertuetara joatea	Liburutegietara joatea	Zinemara joatea	Antzerkira joatea
EAE <sup>1</sup>	73,1	37,7	30,2	54,1	21,8
UE-27 <sup>2</sup>	71,0	37,0	35,0	51,0	32,0
Espainia <sup>3</sup>	57,7	(Musika klasikoa) 8,4	17,6	52,1	19,0
		(Musika garaikidea) 26,4			


(1) Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohitura, praktikak eta kontsumoa 2007-2008 inkesta.*

(2) Iturria: Eurostat. *Eurobarómetro 67.1, 2007.*

(3) Iturria: Kultura Ministerioa. *Espainiako kultura-ohitura eta -jardueri buruzko 2006-2007 inkesta.*

<sup>13</sup> Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioa. *Espainiako kultura-ohitura eta -jardueri buruzko 2011 inkesta.*

## 1. grafikoa. Euskarazko liburuak irakurtzen dituzten elebidunen ehunekoa, lurraldeka



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohitura, jarduera praktikak eta -kontsumoari buruzko 2007-2008 inkesta.*

## Eredu digitala

### 2. taula. Liburuaren eredu digitalaren ezaugarriak

AEB	Europa
Kuota ona argitalpenetako sektore guztietan	Kuota txikia; haatik, hazteko gaitasun handia
Hazkunde luzea 2007az geroztik	Merkatu hasiberria, 2012tik aurrera sendotzen
Oso negozio-eredu finkatuak	Egituratu gabeko negozio-ereduak
Enpresa handiak argitaratzen eta banatzen	Enpresa handiak herrialde guztietan finkatu gabe; enpresa txiki eta ertainek nahiko garrantzi dute, eskaintza ugari eta iragankorrekin
Irakurtzeko gailuak milioika saldu dira	Irakurtzeko gailu gutxi saldu dira
Eskaintza editorial ugaria (hainbat milioi titulu)	Eskaintza editoriala hazten; azken merkatu zehaztu gabea
Argitaratze-legeak argiak eta luzez onartuak	Argitaratze-lege ugari eta desberdinak, oso eredu desberdinekoak

Iturria: A.T. Kearney y Book republic (2011).



- Liburu elektronikoaren digitalizazioari buruzko inkestan<sup>14</sup> parte hartu duten argitaletxeen % 75ek badu proiektu digitala. Argitaletxeen % 95ek baino gehiagok erabakia du funtsaren eta nobedadeen zer zati digitalizatuko dituen.
- Mundu digitalean gehien sartu den sektorea komikiarena da (argitaletxeen % 94k abian du proiektu digitalen bat); haur eta gazteen literatura eta giza eta gizarte-zientziak datoz atzetik.
- Funtsaren % 10 eta % 50 bitartean formatu digitalean salduko duten argitaletxeen kopurua bikoiztu egin da.
- Zuzenbideko eta Zientzia Ekonomikoetako obrak, dibulgazio orokorrekoak, liburu zientifiko-teknikoak eta unibertsitatekoak eta literarioak izango dira funtsetik gehien digitalizatzen direnak, ordena horretan.
- Bi urtean, digitalean baino argitaratzen ez diren obrak katalogoko % 8 izango dira gehienez.
- Argitaletxeek beren obra digitala merkaturatzeko gustukoak dituzten kanalak plataforma komertzial generikoak eta zuzeneko salmenta (argitaletxearen beraren webgunearen bitartez) dira. Talde argitaratzaile handiek, ostera, nahiago dute beren eduki digitalak beste argitaletxeekin batera egindako plataformak erabili..

## SEKTOREARI BURUZKO DATUAK

### Tamaina eta asimetriak


- Estatuko ekoizpen pribatuaren ia heren bat (% 30,4) 112 argitaletxek (2011n jarduera izan zuten argitaletxe guztien % 3,2) ekoitzi zuten<sup>15</sup>. Madril eta Katalunia dira Estatuko argitalpenen buruan, 2011ko ekoizpenaren % 63,4 biltzen baitzuten, besteengandik oso urruti: Andaluzia (% 12,6), Valentziako Erkidegoa (% 7,0), EAE (% 2,9).

<sup>14</sup> Argitaratzaileen Elkartearen Federazioa eta Germán Sánchez Ruipérez Fundazioa. Liburu elektronikoaren digitalizazioari buruzko 2011ko azterketaren bigarren oldea.

<sup>15</sup> Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioa. *Panorámica de la edición española de libros*.


- Banaketari ere eragiten dio kontzentrazioak, estatu osoko liburu banatzaileak 121 enpresa izanik, horietako 15ek fakturazioaren % 77 egiten baitute.
- Argitaletxe pribatuen salmenten % 57,8 EAEn bertara doaz. Gainerakoa Kataluniara (% 4,9), Madrilera (% 11,0) eta Nafarroara (% 8,0), batik bat.
- Euskarazko lanen fakturazioaren % 89,2 EAEn bertan saldu zen. Bestalde, EAEn saltzen diren liburu guztien % 22,6 EAeko bertako argitaletxeek ekoitziak dira. Horien fakturazioaren % 72,6 euskarazko obrei dagokie.

## 2. grafikoa. EAeko liburu-denden arteko asimetriak. 2009



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Artea eta Kultura industriei buruzko estatistika 2009.*

### 3. grafikoa. EAEko argitaletxeen arteko asimetriak. 2009



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Artea eta Kultura industriei buruzko estatistika 2009.*

### EAEko argitaratzaileen sektorea

3. taula. EAEko argitaletxeen sektorearen zifra nagusiak. Bilakaera 2008-2010eko bilakaera

	2008	2009	2010	Variación interanual (%)
Enpresa-unibertsoa	110	112	110	<b>-1,8</b>
Euskaraz argitaratzen dute	69	71	68	<b>-4,2</b>
Sortutako enplegua	570	516	497	<b>-3,7</b>
Argitaratutako tituluak	3.856	3.691	3.588	<b>-2,8</b>
Euskaraz	1.563	1.561	1.476	<b>-5,4</b>
% euskaraz	40,5	42,3	41,1	<b>-2,7</b>
Argitaratutako aleak	8.058.770	7.568.935	6.906.428	<b>-8,8</b>
euskaraz	3.595.876	3.353.593	3.175.606	<b>-5,3</b>
% euskaraz	44,6	44,3	46,0	<b>3,8</b>

.../...

.../...

	2008	2009	2010	Urtetik urterako aldaketa (%)
Tituluko ale-kopurua, batez beste	2.090	2.051	1.925	<b>-6,1</b>
euskaraz	3.301	2.148	2.152	<b>0,2</b>
Katalogoan bizirik dauden tituluak	21.923	22.352	22.584	<b>1,0</b>
euskaraz	9.651	9.718	10.003	<b>2,9</b>
Fakturazioa (milioi eurotan)	79,27	73,81	67,56	<b>-8,5</b>
euskaraz	38,34	34,09	31,82	<b>-6,7</b>

Iturria: Euskadiko argitalpenei buruzko XVI. txostena. Barne-merkataritza 2010. Euskadiko Editoreen Elkarte.

#### 4. taula. Argitaratzeari eta fakturazioari buruzko datu nagusiak, gaika. 2010

	Argitaratutako tituluak	Argitaratutako aleak (x 1.000)	Batez besteko ale-kopurua	Titulu biziak	Fakturazioa (x 1.000)
<b>Guztira</b>	<b>3.588</b>	<b>6.906</b>	<b>1.925</b>	<b>22.584</b>	<b>67.563</b>
Literatura	529	621	1.174	3.540	4.015
Haur eta gazteak	791	1.917	2.424	4.334	9.953
Unibertsitateaz besteko testuliburua	1.051	2.905	2.765	4.716	34.890
Zientifiko-teknikoa eta unibertsitatekoa	147	103	703	2.059	875
Giza eta Gizarte Zientziak	690	662	960	4.920	7.177
Liburu praktikoak	160	286	1.786	827	4.827
Dibulgazio orokorra	76	93	1.225	1.189	1.503
Hiztegi eta entziklopediak	21	23	1.056	210	1.479
Komikiak	93	227	2.438	422	1.007
Besterik	30	70	2.307	366	1.837

Iturria: Euskadiko argitalpenei buruzko XVI. txostena. Barne-merkataritza 2010. Euskadiko Editoreen Elkarte.

**5. taula.** Euskarazko argitalpenari eta fakturazioari buruzko datu nagusiak, gaika. 2010

	Argitaratutako tituluak	Argitaratutako aleak (x 1.000)	Batez besteko ale-kopurua	Titulu biziak	Fakturazioa (x 1.000)
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.476</b>	<b>3.176</b>	<b>2.152</b>	<b>10.003</b>	<b>31.823</b>
Literatura	250	278	1.114	1.746	2.217
Haur eta gazteak	442	854	1.932	3.315	5.432
Unibertsitateaz besteko testuliburua	637	1.826	2.866	3.471	22.598
Zientifiko-teknikoa eta unibertsitatekoa	18	13	717	410	12
Giza eta Gizarte Zientziak	36	41	1.136	626	119
Liburu praktikoak	19	40	2.062	97	296
Dibulgazio orokorra	11	28	2.499	110	253
Hiztegi eta entziklopediak	18	20	1.133	111	576
Komikiak	28	39	1.360	64	119
Besterik	16	37	2.304	52	201

Iturria: Euskadiko argitalpeni buruzko XVI. txostena. Barne-merkataritza 2010. Euskadiko Editoreen Elkarte.

**6. taula.** Espainiako liburuaren banaketa-sektoreari buruzko datu nagusiak. 2008-2010eko bilakaera

	2008	2009	2010	Urtetik urterako aldaketa (%)
Enpresa-kopurua	120	112	121	<b>+8,0</b>
Liburuaren fakturazioa	1.724,6	1.697,3	1.664,8	<b>-1,9</b>
Zerbitzatutako ale-kopurua	216,8	219,7	211,9	<b>-3,6</b>
Saldutako ale-kopurua	157,3	163,2	152,1	<b>-6,8</b>
Itzulitako ale-kopurua	55,5	56,6	59,8	<b>+5,8</b>
Garraiatutako ale-kopurua	276,0	276,3	271,7	<b>-1,7</b>
Bidalitako eskaerak	6,6	6,0	6,5	-
Eskaera bakoitzeko ale-kopurua	33	36	33	-

Iturria: Liburuaren eta Aldizkako Argitalpenen Banaketa-sektorearen Profilaren XVI. azterketa. FANDE.

## Analogikoen krisia ez dute digitalek eragin

- Formatu digitalean 2.388 izenburu argitaratu ziren; katalogoko funtseko 586 izenburu digitalizatu ziren; formatu digitalean 614 izenburu merkaturatu ziren, guztira 393.439 euro fakturatzea ekarri zutela.
- Fakturazio horren erdia baino gehiago Giza eta Gizarte Zientzien alorrari dagokio (% 51,7), eta haren atzetik Zientzia eta Teknika eta Unibertsitatea (% 24,7) eta Zuzenbidea eta Giza Zientziak (% 20,7) datoz.

## Euskaraz argitaratzea

### 7. taula. Adierazle nagusiak, argitaletxe-motaren arabera. 2010

	Argitaratutako tituluak		Argitaratutako ale-kopurua		Salduta ale-kopurua		Katalogoan bizirik dauden tituluak		Fakturazioa (milaka eurotan)	
	Tituluak	%	Aleak	%	Aleak	%	Tituluak	%	Euroak	%
EAE	1.476	73,7	3.175.606	86,8	2.269.598	88,2	10.003	68,1	31.823	87,0
Nafarroa	18	0,9	20.137	0,6	15.937	0,6	301	2,0	255	0,7
Iparraldea	29	1,5	32.540	0,9	12.810	0,5	240	1,6	196	0,5
Beste erkidegoak	356	17,8	372.862	10,2	253.863	9,9	1.853	12,6	4.087	11,2
Argitaletxe pribatuak, guztira	1.879	93,9	3.601.146	98,4	2.552.208	99,2	12.396	84,4	36.361	99,4
Argitaletxe publikoak	122	3,1	57.340	1,6	20.948	0,8	2.296	15,6	220	0,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.001</b>	<b>100</b>	<b>3.658.486</b>	<b>100</b>	<b>2.573.155</b>	<b>100</b>	<b>14.693</b>	<b>100</b>	<b>36.581</b>	<b>100</b>

Iturria: Euskarazko argitalpenei buruzko 2010eko txostena. Euskadiko Editoreen Elkarteak.

## 8. taula. Ratio nagusiak, argitaletxe-motaren arabera. 2010

	Batez besteko ale-kopurua	Katalogoko tituluak / argitaratutakoak	Batez besteko prezioa	Saldutakoak / argitaratutakoak
EAE	2.152	6,8	14,0	71,5
Nafarroa	1.119	16,7	16,0	79,1
Iparraldea	1.107	8,2	15,3	39,4
Beste erkidegoak	1.047	5,2	16,1	68,1
Argitaletxe pribatuak, guztira	1.916	6,6	14,2	70,9
Argitaletxe publikoak	470	18,8	10,5	36,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.828</b>	<b>7,3</b>	<b>14,2</b>	<b>70,3</b>

Iturria: Euskarazko argitalpeni buruzko 2010eko txostena. Euskadiko Editoreen Elkarte.

### Liburu-dendak

Joera hauek hautematen dira 2006tik 2010erako bilakaerako datuetan<sup>16</sup>:

- Liburu-denden kateen nahiz liburu-denden bidezko salmentek % 12,7ko beherakada izan dute aldi horretan. Euskarazkoek, % 11,1ekoa.
- Enpresa eta erakundeei eginiko salmentak, eskolei saldutako testuliburuak barne, ez dira aldatu 2006ko guztizko kopuruei dagokienez, baina, euskarazkoei dagokienez, % 114,8 egin dute gora.
- Hipermerkatuetako salmentek % 13,4 egin dute behera oro har, eta % 42,4 euskarazko liburuen kasuan.
- Postaz, klub bidez, Internetez nahiz harpidetzaz eginiko zuzeneko salmentek ere behera egin dute, % 46,2 oro har, eta % 86,8 euskarazkoen kasuan.

<sup>16</sup> Euskadiko Editoreen Elkarte. *Euskadiko argitalpeni buruzko XVI. txostena. Barne-merkataritza 2010.*



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

kulturaren  
euskal  
kontseilua  
consejo  
vasco  
de cultura



kulturaren  
euskal  
kontseilua

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco